



GERNUAREN ZITOLOGIA (ANATOMIA PATOLOGIKORAKO LABORATEGIA)

Gernuaren zitologia azterketa bat da, maskuritik eta gernubideetatik datozen zelulak analizatzeko egiten dena.

"Gernuaren zitologia" deritzon bolantea emango dizute jaso beharreko gernu-lagin bakoitzeko (bi edo hiru), eta gernua bera jasotzeko potoak.

Bi edo hiru egunez jarraian bilduko duzu, eskatu bezainbeste aldiz.

GERNU-LAGINAK JASOTZEA

1. Goizeko bigarren gernua jasoko duzu, **aurretik bi baso ur edanda**.
2. 50 eta 100 ml artean bete potoa, zuzenean bertara txiza eginda.
3. Itxi potoa hermetikoki. Ez baduzu momentuan entregatu behar, gorde lagina HOZKAILUAN.
4. Identifikatu lagina **IZENA, BI ABIZENAK eta IKK**.
5. Eman laginak eta bolanteak Lehen Mailako Atentziorako zentrorik hurbilenekoan, AUOko Anatomia Patologikoko Laboratoriora igor dezagun.